

Garbine Ubeda Goikoetxea

Lea Ibarri gorazarre



porraldi bezperak Lea Ibarri ekartzen didate gogora; uztail amaiera batean eta lan baten aitzakian Lekeitiara heldu, handik gora hasi eta Oiz mendira bitartean ezkutatzaren diren parajeak –batik bat Munitibar, Aulesti, Giza-buruaga, Amoroto eta Mendexa udalerriak– deskubritu nituenekoa.

Orduko hartan ikasitakoak ikasita, arazo larrien aurrean hartutako jarrerak egin ditu bost udalerriok berezi eta eredugarri; herri txiki guztiek azken mende erdian bizi izan dituzten astinaldien aurrean erakutsitako jokamoldeak, hain justu.

1970eko hamarraldian, nekazal guneen hustea eta bertako jendeen emigrazioa ebitaezinak ziruditean, herri bizitza aldarrikatzeko mugimendu dinamiko eta sutua ipini zuten abian. Hala, bost herrion gainbehera gelditzeko, gabeziei konponbidea aurkitzeko, irakaskuntza euskalduna lortzeko, lantegiak finkatzeko, zerbitzuak eskaintzeko nahiz komunikazioak hobetzeko plangintza integrala taxutzeari ekin zioten elkarrekin, kontzeptu berri bat indarrean jarrita: bailararen onura. Esan nahi baita, Lea-Artibai bezalako eskualde ofizialen –kasik artifizialen– gainetik, ezaugarri eta arazo antzekoak dituzten herri txikiak osatu zuten multzoaren mesedea.

Sen aparta erakutsi zuten, halaber, garai hartan moda-modako zen anexoari ezezkua eman eta udalen arteko koordinakundea alternatiba gisa proposatu zutenean; batez ere, korronte nagusiari berriz ere kontra eginez, lekuan lekuko izate propioaren galerarik ez dakarren elkarlana bultzatzeagatik. Ideia haren oinordeko zuzena dugu, izatez, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa bera, baliabideak optimizatzeaz batera, garapen ekonomikoa sustatzeaz, Okamikako industrialdeari bideak zabalitzeaz arduratu den erakundea.

Eta intuizio paregabea, hirugarrenez, Okamikako industrialdea kudeatzean erakutsi dutena. Zoru industrialik edo enpresak sortzeko tradizioarik ez zen tokian, malgar eta muino besterik ez den lurrari pinua landatzeaz gainerako etekina ateratzen jakin dutelako. Oker ez banago, 400dik gora lanpostu iraunkor biltzen ditu gune



DANI BLANCO

honek. Ez da zifra makala, bertan bizi den lagun kopurua kontuan hartzen bada.

Gaur, ustelkeriak, alderdikeriak, itsukeriak, ilegalizazioak, morrontza lotsaga-beak *politika* eta *demokrazia* zentzurik gabeko hitz barregarrienen artean kokatu dituztenetik, txiste bihurtzen ari zaizkigu udalak, txiste miserable eta lotsagarri zenbaitetan, Lizartza kasu. Eta txistearen txiste, eguneroko zeregin administratibotatik gaindiko proiektu imajinatiboak, hirigintza konprometitua.

Hala, udal gobernuetarako eskumenak ematen diren bezala ematen direlako, edota, alderantziz, kentzen diren bezala kentzen direlako, tragikomediaren adibide ugari aurkitzen dira ezaugarri geografikoek hainbesteko pisua duten lurrotan ere. Esate baterako, gobernatu behar duten herria mapan behar bezala koka-

Sen aparta erakutsi zuten, halaber, garai hartan moda-modako zen anexoari ezezkua eman eta udalen arteko koordinakundea alternatiba gisa proposatu zutenean; batez ere, korronte nagusiari berriz ere kontra eginez, lekuan lekuko izate propioaren galerarik ez dakarren elkarlana bultzatzeagatik.

Idea haren oinordeko zuzena dugu, izatez, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa bera

tzen ez dakiten “turistak” zinegotziaren aulkian eserita, erabakiak hartzeko prest. Esate baterako, Udalen Mankomunazgoa iparririk gabe utzi eta erabaki ahalmena euren eskutan bakarrik nahiko luketen alkateen tentaldiak. Esate baterako, Okamikako industriagunean urte luzetan metatutako jakinduria, eskarmentu bidez zaildutako ezaguera behar baino lehen jubilatuta arazteko saioak.

Eskualdeko motore izan diren horiek izango ahal dute, laugarrenez, kinka horri aurre egiteko behar den adore eta imajinazioa. ■